



Amaia
eta Martin
Barazkien
Jaian

*Nafarroako baratze
magikora bidai liluragarria*

Entzun
audio-ipuina



Itziar Ancinek idatzia - Leire Urbeltzek ilustratua



Itziar Ancinek idatzia

Leire Urbeltzek ilustratua

Amaia eta Martin Barazkien Jaian



INTIAk argitaratua, Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta
Azpiegituren Nafarroako Institutua, Serapio Huici Etorbidea
22, 31610 Atarrabia (Nafarroa).

- Egun on!

Amonak logelako pertsianak igo ditu. Amaiak eta Martinek nagiak atera dituzte, esnatu dira, baina oraindik begiak itxita.

- Ez, oraindik ez, amona! –protesta egin du arreba nagusiak.

- Altxa, gora! Gaur ezusteko plan harrigarri bat dugu–dio aitonak.

- Zer plan, aitona? –galdetu du iloba gazteenak.

- Jaiki aurrena, dutxa bat hartu eta gosaldtu. Gainera, esanez gero, ez da sorpresa izango –erantzun du amonak.

- Baina nora goaz? –dio Martinek temati.

Aitonak eta amonak irribarre egin dute eta logelatik irten dira.

Sukaldean, aitona esnea berotzen ari da lapiko batean. Bitartean, Martinek eta Amaiak gurina zabaltzen dute ogi txigortuan. Amona, aldiz, arreta handiz egunkaria irakurtzen ari da.

- Emadazu piku eta udare marmelada –eskatu dio Martinek arrebari.

- Tori.

- Amona, zer moduz? Aurkitu duzu? –galdetu dio aitonak.



- Bai, hemen dago programazio osoa.

- Zer programazio? –galdetu du Martinek.

- Tira...ondo gosaltzen baduzue, agian kontatuko dizuegu, ezta, aitona? –esan die amonak, irribarrez eta begi-keinua eginez.

- Ene! Ez zaizkit sorpresak gustatzen, oraintxe jakin nahi dut! –kexu agertu da txikiena.

- Ongi da. Gaur arratsaldean Nafarroako Barazkien Jaiera joango gara.

- Barazkien Jaia? –dio Amaiak, sudurra uzkuratuz.

- Baina, zer dago Barazkien Jaia batean, amona? –galdetu du Martinek.

- Jai honetan, barazkiek berezko bizitza hartzen dute eta abestu, dantzatu... egiten dute eta ikuskizun oso bat eskaintzen dute –oso serio erantzun dio.

Amaiak eta Martinek begiak zorroztu dituzte, zur eta lur daude eta aitona-amonak txandaka begiratu dituzte, haien aurpegiak aztertuz.

- Benetan? –Martin sinesgogor dago, ez du sinisten.

- Hori, ezin da. Polita litzateke, baina ezin da izan –erantsi du Amaiak kopeta zimurtuz.

- Ia-ia sinetsi duzue! –esan du amonak barrezka.

- Arraioa! –Martinek protesta egin du.

- Beraz, zer dago jaia horretan? –galdetu du Amaiak.

- Udaberriaren etorrerarekin batera, Nafarroako herriek fruitarik eta barazkirik onenen uzta biltzen dute –azaldu die aitonak.

- Zer da “uzta biltzea”? –jakin nahi izan du Martinek.

- Nekazaritzan, uzta da soroetako fruituen, hazien edo

barazkien bilketa. Jakiak helduta dauden garaian jasotzen dira –dio amonak.

- Orduan, barazkiak eta frutak bildu dituztenez, ospatu egiten dute janari oparo bat eginez, bai? –dio Martinek.

- Hala da. Nafarroako hainbat eremutako pertsona askok barazkiak eta frutak landatzen dituzte, haiek lurra lantzetik bizi dira –gaineratu du amonak.

- Ziur ikastetxeko lagun batzuk euren familien baratzera joaten direla, eta, beharbada, ereiten edo fruituak jasotzen lantzen dute –dio aitonak.

- Akaso, bai, baina, ez dakit –erantzun du Martinek.

- Bai, nik baditut –dio Amaiak.

- Oso garrantzitsua da nekazarien eta abeltzainen familiak egotea, haiek kalitate handiko elikagaiak ematen dizkigute jateko –azaldu du aitonak.



- Horiei esker, gure herriak bizirik mantentzen dira. Gainera, Barazkien Jaiak ospatzen dituzte; izan ere, Nafarroako baratza ospetsua da. Oso ezaguna da bere laboreen kalitateagatik, gozoak eta bitaminaz beteak! –gehitu du amonak.

- Barazki Jai bat aspergarria izan behar du –Amaiak protesta egin du.

- Nik gustuko dut –dio Martinek.

- Musika egongo da eta pintxo goxoak ere, barazkiak modu desberdinetan dastatzeko. Ziur ondo pasatuko dugula –dio aitonak.

- Benetan? Izango al da emanaldirik? Baina fruten eta barazkien kontzerturik ez...noski –dio Amaiak, begirada apalduz.

- Talde ezagunak taularatzen dira urtero, animazio handia egongo da eta pixka batean dantza egin ahal izango dugu –erantzun dio amonak.

- Guztietan onena jakien dastaketa izango da, piperrak, zainzuriak...mmm. Behin, orburu frijituen pintxoak jan nituen foie-grasarekin eta ahatearekin, mmm! –dio aitonak atsegin hartuz.

- Orburuak? Nik dauden barazki pintxo guztiak probatu nahi ditut eta gero etxean egin, errezetak hobetuz, noski! –oihukatu du Martinek.



- Ongi da. Sukaldari gazte bat daukagu etxean, hau zortea! –dio aitonak.

- Barazkien Jaira joango gara lehenbiziko aldiz! –adiera-zi du Martinek, begiak distiratsu.

- Orain, gosaltzen amaitu baduzue, atera gaitezen par-
kera paseo bat ematera. Eguraldi aparta dugu ibiltzeko, eta
azoka txiki bat jarri dute Nafarroako jakiekin, denak he-
mengoak eta denak itxura bikainarekin -dio amonak.

- Oso ongi! –erantzun dute Amaiak eta Martinek.

Parkean, familia ibaiaren ertzean dabil, udaberriko ki-
muak eta loreak dituzten zuhaitzen azpian.

- Begira, han daude salmahaiak. Hurbildu gaitezen zer
dagoen ikusteko –proposatu die aitonak.

Reyno Gourmet markaren saltokian, saltzaileak elika-
gai batzuk eskaintzen ari da dastatzeko.

- Nafarroako kalitatezko elikagaiak ezagutzen dituzue?
Reyno Gourmet markak babesten ditu denak! Zatozte Lo-
dosako Pikillo Piperra dastatzera! Gutizia hori, eta Tuterako
Orburua eta Nafarroako Zainzuria gure gastronomiako bi-
txiak dira, osasuntsuak eta goxoak.

- Eta nola jakiten da Nafarroakoak ote diren? –galdetu
dio Amaiak saltzaileari.

- Nafarroako Reyno Gourmet kalitate-markako produk-
tuak ezagutzeko, etiketetan Reyno Gourmet logotipoa topa-
tu behar duzue, bai latetan, bai kartoizko kutxetan, bai eta
kontserba-potoetan. Barazetik hartu berri diren barazkietan,
aldiz, logotipoa zintetan eta eranskailuetan adierazita dago. Eli-
kagai bakoitzak zigilu bat du, marrazki bat, nafarra eta kalitate-

koa dela adierazten duena. Hauxe da orburuaren zigilua, hauxe,
zainzuriaren zigilua. . . Gainera, ontzi bakoitza zenbakituta dago,
denak kontrolatuta edukitzeko! –saltzaileak erakusten dizkie.

Lodosako Pikillo Piperra jan dute Amaiak eta Marti-
nek, eta begiak itxita dastatu dute.

- Ze ona! Gozoa da eta ez da piper mina!

- Horixe! Kolore gorri bizia du, eguzkiari esker, eta
haren izena, pikillo, gaztelaniazko hitza batean du jatorria,
hegazti baten mokoa gogorazten duen mutur kurbatu ba-
tean bukatua duelako, triangelu itxurakoa –dio,
eskuan piper baten forma erakutsiz.



- Nafarroako Zainuria ere dastatu behar duzue. Samurrena eta zaporetsuena da, gau hotzen eta landatzen duten lurreko uren garbitasunaren ondorioz. Zainuri-landarearen zurtoinetik jaiotzen da eta lurrak estalita hazten da, eguzkiaren argia jasoko balu, berde bihurtuko litzatekelako. Nafarroako Zainuriak proteina asko ditu barazki bat izateko.

- Gozo-gozoa! –oihukatu du Amaiak.

- Lodosako Pikillo Piper bi lata eta Nafarroako Zainuriaren beste bi eramango ditugu, mesedez –amonak saltzaileri eskatu dio.

Hurrengo salmahaian, amonak orburu mozorroa duen neska bat agurtu du.

- Sandra, maitea, zenbat denbora elkar ikusi gabe! Nola zaude? Ederki ikusten zaitut horrela jantzita. Mesedez, kontatu zer duzun hemendik.

- Jakina! Zergatik ez dituzue probatzen Nafarroako sasoiko produktu ekologikoak? Ekoizpen ekologikoa jasangarriagoa izateaz gain, gure osasuna, ingurumena eta planeta zaintzen ditu.

- Garrantzitsua da sasoiko produktuak jatea, urteko une bakoitzean, lurrak zapore handiagoko eta propietate hobeko fruituak ematen dizkigu eta –dio aitonak.

- Gainera, kalitate-zigilua badute, non ekoitzi diren eta modu jakin batean landu eta elaboratu direla ziurtatzen digute, eta horrek ezaugarri bereziak ematen dizkie. Horregatik bereizten dira, jatorriagatik eta kalitateagatik –dio Sandrak, orburua eskuan hartu eta erakusten duen bitartean.

- Begira: Tuterako Orburua forma biribilduagatik eta hostoengatik bereizten da, hostoek ez baitute burua ixten, eta zulo

txiki bat uzten dute erdialdean. Gehiena ura da. Oso garrantzitsuak dira bere arazketa-propietateak, hau da, organismoaren garbitzaile bikainak da. Digestioari laguntzen dio, zuntz ugari baitu. Samurra eta zoragarria. Hori bai, oso ondo zuritu behar da!

- Bi dozena orburu, beste bi dozena zainuri eta gezzi- kutxa bat eramango ditugu –aitonak esan dio.

- Oso ondo. Gainera, bertako produktuak erostean, garrarioak murrizten ditugu, gutxiago kutsatzen da eta nekazaritzatik bizi diren pertsonak laguntzen ditugu –gaineratu du Sandrak.

- Hala da. Dirua gure herrietan gastatzen badugu, bizirik jarraituko dute! Jendea bertan bizi ahal izango da, lana izango du, eskolak egongo dira, parkeak ondo zainduta, osasun-zentroak, dendak... Horregatik da hain garrantzitsua hemen ekoizten diren elikagaiak erostea –nabarmendu du amonak.

- Eta elikagai aparta eta fresko horiek guztiak ekoizten dituztenek nekazari izaten jarraitu eta lanean segi ahal izango dute. Egun ona pasa! –Sandrak agurtu ditu.

- Berdin! –erantzun diote, eta parkean paseatzen jarraitzen dute.

- Nahi al duzu ibaira jaistea, ahate txikiak, zapaburuak eta igelak dauden ikustera? –galdetu dio Martinek arrebari.

- Bai, goazen! –erantzun dio Amaiak.

- Ados, aitonak eta biok erosketak etxean utziko ditugu, eta gero, eserleku hartan jarriko gara eguzkitan –amonak esan die.

Ibaian, ahate-ama familia osoaren buru da. Aurten bederatzi dira ilez estalita jarraitzen duten ahate txoak. Batzuk adar batzuekin jolasean entretenitu egin dira eta amari jarraitzeari uzten diote. Zapaburuak daude hondoan eta

lokatzaren gainean buztan-kolpeak ematen dituzte.

Bat-batean, norbait igaro da haien ondotik presaka.

- Hamabiak dira! Ez naiz iritsiko! –oihukatu du neskatila batek ahots estuz.

Martinek eta Amaiak elkarri begiratu diote, neskatoaren bila, hura ikustea lortu gabe.

- Nola egin zait hain berandu? –damu da eta korrika doa ziztu bizian.

Zuhaitzen artean neskatoaren ilea eta arropa ikusten dira, eta instant batean desagertu da, parkeko landarediaren artean muino batetik behera korrika.

- Erlojua erori zaio. Haren bila noa ematera! –esaten dio Amaiak bere nebari, korrika jarri denean.

- Bai, ni ere banoa! Zure atzetik noa! –erantzun du Martinek.

- Aizu, erlojua erori zaizu, itxaron! –egin du oihu Amaiak.

- Non sartu da? –galdetu du haur txikienak.

- Zuhaitz horien atzetik, nik uste. Goazen!

Korrika ari dira harrapatzeko, arin-arin.

- Kaixo! Zure erlojua daukagu! Non zaude? –galdetu diote neskari.

- Han! Han ikusi dut! Baina oso arin doa eta urrun dago –dio Martinek.

- Ez al duzu ezer arrarorik ikusi?

- Zer esan nahi duzu?

- Ez dakit, ahotsagatik neskato bat zirudien, baina...

- Neskato bat da, noski baietz! Zer esan nahi duzu?





- Ezer ez, berarengana hurbildu ahala zalantzak argituko ditut.

- Baina ez ibili horren azkar, itxaron, galdu egingo gara!

Amaia aurreratu eta nebarengandik urrundu da. Ikusi du neska zuhaitz batzuen artetik pasatzen: hurbilago dago. Baina, bat-batean, neskato ezezagunak ehun urtetik gorako zuhaitz baten sustraiekin behatopa egin du, eta danba! Erori eta desagertu egin da.

- Hau mina! –garrasi bat entzun da.

- Ondo al zaude? Lagunduko zaitut! –dio Amaiak.

Amaia zuhaitzera gerturatu da, baina ezezaguna ez dago han. Bitartean, Martín iritsi da.

- Sustraien arteko zulo horretatik erori behar izan du. Baina, barruan erabat ilun dago, ez da ezer ikusten.

- Entzuten diguzu? Ondo zaude? –oihu egin du Martinek sustraien arteko zulotik.

- Lagundu egin behar dugu.

- Goazen amonaren eta aitonaren bila.

- Bai, goazen! Nondik etorri gara?

Atzera begira daude, etorri diren bidea ezagutzeko seinaleren bat bilatu nahian, baina nahasmen handia dute.

- Lagundu egin beharko diogu –dio Amaiak, neska misterioetsua irentsi duen sustraien arteko hutsunea begiratzeko duen bitartean.

- Baina, ez da ezer ikusten!

- Tira, trankil, ni hemendik jaitsiko naiz eta zu zain egon.

- Ez, zurekin noa.

Amaia zuhaitz zaharraren sustraien arteko zuloaren ondoan eseri da, eta pixkanaka-pixkanaka bertatik behera egin du, baina, bat-batean, irrist egin eta tunel ilun batean erori da.

- Aiaiai...!

Beherantz erortzean, haren ahotsa urrundu egiten da, eta bere oihartzunarekin nahasten da, desagertu arte.

- Amaia! Ondo zaude? Zure bila noa!

Martín haitzuloaren sarreran eseri da, sustraien artean dagoen zuloaren ondoan. Atzerantz makurtu da, begiak itxi ditu, eta dardara egiten badu ere, zirrikitutik irristatu da, txirrista batetik bezala.

- Banoa!

Bitartean, Amaia tunelaren hondora iritsi eta astinaldi handi batekin lurrera erori da.

- Ene, ze kolpea! –kexu da, eta burua eta bizkarra ukitu ditu ongi dagoela ziurtatzeko.

Arropari itsatsitako adarrak eta sasiak kendu eta ileko hautsa astindu ditu. Argia kobazuloaren barreneraino sartzen da, eta haitzuloaren beste irteeratik, urrunean, neska toa korrika ikusi du.



- Zenbat berandutu naizen! Nola egin dut hau? –dio damututa.

- Aizu, itxaron! –Amaia jaiki da supituki, begirada neskatilatik aldendu gabe. Baina, neskato urduria korrika urruntzen ari da etengabe. Oso azkarra da eta abantaila du. Presaka dabil nonbaitera iristeko. Amaiak atzetik jarraitzen dio eta harrapatzen saiatzen da, baina lore horiz betetako belardi bateko zuhaixken artean desagertzen ikusi du.

Orduan, Martin tunelaren amaieran erori da. Amaiak buelta eman du neba erortzean eta berarengana hurbildu da azkar batean. Anai txikiak burua, belaunak, ukondoak eta bizkarra laztantzen ditu, minez.

- A ze kolpea! Hau mina! Non gaude? –Arrebari galdetu dio. Amaiak eskua luzatu dio eta altxatzen lagundu du.

- Ez dakit. Hala eta guztiz ere, aurkitu egin behar dugu, handik joan da!

Biak korrika hasi dira neskatoaren atzetik. Lore horien eta zuhaixken belardia zeharkatu ondoren, ikusi dute, zuhaitz artean.

- Arrazoi zenuen, neska bat da, baina arraro samarra. Beno, egia esan iruditu zait... piper bat! –aitortu du Martinek.

- Nola izango da piperra! Ez esan txorakeriarik. Neskabila ez bada... orduan, zer da? Piper bat hitz egiten duena, erlojua darama eta korrika egiten duena, ezta? Ez du inolako zentzurik.

Une horretan, neskatoa eskuinerantz egin du eta hobeto ikus dezakete.

- Arrazoi duzu, benetako piper bat da! –esan du Amaiak.

- Esan dizut.

Pipertxo muino batera igo da eta horregatik, une horre-

tan, bistatik galdu dute. Amaia eta Martin, muinoraino iritsi dira eta inguratu egiten dute, beste aldean zer dagoen ikusteko. Piperra han dago, harri batzuen gainean igota, eszenatoki baten moduko batean, baina oraingoan ez dago bakarrik.

- Guztiak piperrak al dira? –galdetzen dio Amaiak nebari.

- Nik baietz esango nuke. Kantatzen ari dira eta batzuek gitarra jotzen dutela uste dut.

- Presaka zebilen...igual, piper musikarien taldearekin geratuko zen musika jotzeko, baina... ez dago entzulerik!

Oso arraroa da!

Amaia eta Martín piperren taldera hurbildu dira. Haiek kantari eta gitarrak jotzen ari dira, buru-belarri. Hain kontzentratuta daude, Amaia eta Martinen presentzia nabaritu ere ez



dutela egiten. Erlojuaren jabea bizkarrez dago, taldearen aurrean, eta besoak astinduz ematen dizkie oharrak. Sei piper dira, arnasa betean kantatzen daude, begiak itxita daude eta eskuak gerrian jarrita dituzte, eta horien ondoan bi piper gitarrista daude.

- *Gaur Barazkien Jaiaaaaaaaaa ospatzen duguuuuuuuuuuu* (jota bat kantatzen ari dira).

Abestia amaitzen dutenean, Martin eta Amaia pixka bat gehiago hurbildu dira jota-taldera, eta keinuak egin dizkiete, zuzendariari abisatu eta haiekin hitz egitera joateko.

- Aizu, barkatu! –garrasi egin du Amaiak.

Zuzendaria biratu eta jakin-minez begiratu die.

- Bai?

- Erlojua bidean erori zaizu eta honaino jarraitu zaitugu emateko –esan dio, erakutsiz.

- Hara, eskerrik asko! –erantzun du, irribarre handi eta ahots-tinbre indartsu batez.

- Ez horregatik.

- Presaka netorren eta ez naiz konturatu ere egin.

Eszenatokitik jauzi batez jaitsi da eta eskua luzatu die, erlojua berreskuratu aurretik.

- Alizia izena duzu? –esan zion Martinek.

- Alizia? Ez, Pikitxu dut izena.

- Ni Amaia naiz eta bera Martin da, nire neba.

- Kaixo, Pikitxu.

- Ikusten duzuenetz, Lodosako Pikillo Piperren jota-taldea zuzentzen dut, nire herriko taldea, eta kantatzen ditugun jotetako batzuk ere konposatzen ditut. Gaur, egun handia dut jota bat abestuko baitut nik bakarrik, horregatik

nago oso urduri! –esan die Pikitxuk arnas betean oihuka.

- Gure emanaldia ikusiko duzue? –galdetu die gitarris-
ta batek.

- Bai horixe! Hemen zaudete horretarako. Nolako txo-
rakeria galdetu duzun hori! –erantzun du beste batek.

- Zatozte nirekin eta lekurik onena lortuko dizuet –Pi-
kitxuk begien keinuaz animatzen ditu.

Anai-arrebak elkarri begira daude, zer erantzun jakin gabe.

- Eskerrik asko, baina aiton-amonak...

- Jaialdia hasi baino lehen, soinu-proba
egin behar dugu eszenatokian, gure-
kin egon nahi duzue? –eten
dio hitza Pikitxuk.

- Atzeratuz gero, kezkatu egingo dira, gure zain daude
–dio Amaiak.

- Tira! Ezin duzue galdu, gainera artista pila bat aurkez
diezazueket...Zer diozue?

Amaiak eta Martinek elkarri begiratu, eta irribarre egin dute.

- Ados! –erantzuten diote.



Zuhaitz artean, dabilen jota-taldearen atzetik doaz, bizkor-bizkor, herri batera iritsi arte. Etxe modernoz betetako auzoa zeharkatu dute, eta, ondoren, alde zaharreko kale estuak, artisten kamioiez eta kalean paseatzen ari diren beste frutaz eta barazkiz beteak. Oinez jarraitu dute plaza arkupedun bateraino, bertan eszenatoki handi bat dago eta aurrean, plastikozko aulkiak ilaran jarrita, hesi baten atzean. Oraindik ez dago publikorik, argi- eta soinu-ekipo teknikoa soilik, nahasketa-mahaitik probak egiten.

- Erreparatu al diozu nonahi dauden frutei eta barazkiei? Eta talde teknikoa... ez dira piperrak, ezta? – esan dio Martinek arrebari belarrira.

- Uste dut... ezetz. Eta, orain musika jotzen dutenak ezta ere...Zer dira?

- Mexikoko rantxera-talde bat dirudi, kapeluarekin eta pontxoarekin jantziak. Baratxuri gorriak direla uste dut –Martinek barre egiten du, eszenarekin ongi pasatzen ari delako.

- Egia! Kar-kar-kar.

Jendearentzako gunean sartu dira. Pikitxuk eszenatokiaren ondoko aulki-ilararaino jarraitzeko esan die. Lodosako Pikillo Piper musikariak eskaileretan gora igo dira soinu proba egiteko.

- Itxaron hemen, horrela ikusiko duzue dena gertutik, eta gero nirekin etor zaitezketen aldagelara eta izarrak agurtu: Aspergus eta Karshuf. Orain, eszenatokira noa, orain arte!

- Ongi, eskerrik asko! Hemen izango gaituzu zain. Ze ondo! –erantzun dio Amaiak.

- Zentzuk dira horiek? Zuk ba al dakizu? –galdetu dio Martinek arrebari.

- Jakina ezetz, artistak izan behar dute... eta berehala

ezagutuko ditugula uste dut!

Pikitxuk eta bere taldeak soinu proba egin eta segituan, iluntzen hasi da. Bat-batean, publikoak plaza bete du. Mota guztietako barazkiak eta frutak daude, batzuek argazkiak eta mezuak dituzten pankartak daramatzate; askok Aspergusen alde, Nafarroako Zainzuria, eta beste askok Karshufen alde, Tuterako Orburua. Eszenatokiaren inguruan eskegita dauden kartelen arabera, emanaldirik ikusgarrienak dira.

- Ikusi dituzu Aspergusen aldeko kartelak? –galdetu dio Amaiak nebari– Nafarroako

Zainzuriak ospe
handia du!



- Bai, noski, ez ikusteko moduan. Rap abeslaria izango da, kapela eta urrezko kate horiek jantzita, ezta?

- Hip Hop dantzaria da, onena! –gerezi batek argitu die, haien ondoan eseri da eta ikuskizunaren zain dago– Benetan ez duzue ezagutzen? Ikusiko duzue nola mugitzen den, zuntz hutsa da!

- Kar-kar-kar. Jakina, zuntz hutsa dela, zainzuri bat da! Ez al ziren ba konturatuko ez garela barazkiak? –galdetu dio Amaiak nebari belarrira.

- Ez ba. Ez gaituzte arraro begiratzen, akaso ez dira konturatu ala beharbada jendea ikustera ohituta daude.

- Hala uste duzu? Nik uste ezetz.

Showaren hasierako musika entzuten da eta koloretako argiak proiektatzen dira agertokian eta publikoan.

- Hastera doa!

Off ahots batek lehen emanaldia iragarri du:

- Fruta eta barazki preziatuak, hastera goaz! Nafarroako Barazkien Jaialdia hasi egingo da eta inauguratzeko, hainbat artista bikainek haien ezaugarri paregabeak erakutsiko dituzte.

Jendeak gogoz txalotzen du.

- Gogorarazten dizuegu, aurreko edizioetan bezala, gaurkoan ere, epaimahai aditu batek sariak emango diela galako artistarik onenei, baina zuek ere ematen duzue lehiakideek gehien espero duten sarietako bat: ikuslearen saria.

Auditorioak txalo egin eta bere artista kuttunenak goraiatu ditu. Batzuek Pikitxu izena o-

ihukatzen dute. Amaiak eta Martinek elkarri begiratu, eta irribarre egin dute.

- Zuekin guztiekin, Faltzesko baratxuri gorrien zirku-taldea! Orekaren eta indarraren erakustaldi bat egingo digute, eta, bere osagaiak airean marraztuko dute baratxuri-txirikorda klasikoa. Barazkiak batzeko eraketa hori, familia-tradizio bat da, XVII. mendean hasi, eta gaur egun ere jarraitzen duena.

Entzuleek txistu eta txalo egiten dute gogotsu.

- Ez zarete hemengoak, ezta? Inoiz ikusi al duzue? –galdetu die gereziak, pertxenta eta lirain.

- Ez, ez dugu inoiz ikusi –erantzun dio Amaiak.

- Mirari dut izena eta Milagroko gerezi bat naiz.

- Kaixo, gu Martin eta Amaia gara. Zer moduz? –erantzun du txikienak.


- Geroago nire txanda izango da eszenatokian, nire herriko gimnasia erritmikoko taldearekin arituko naiz, erabat urduri nago! –Mirarik aitortu die bere aurpegi biribila distiratsu duela.

- Zu gimnasta zara? Txundigarria! Izugarri gustatzen zait –dio Martinek.

Amaiak axolagabe begiratzen die.

Ikuskizunaren aurkezlearen off-eko ahotsak Faltzesko baratxuri gorrien emanaldiari buruz hitz egiten ari da. Faltsezeko baratxuri gorriak oholtzara atera berri dira:

- Baratxuri-buruen txirikorda-formako eraketa egiten ari dira, hosto lehorrak txirikordatuz egiten dute. Horietako batzuek 50 eta ehun buru bitartean



izan ditzakete, oraingo honetan ikusiko dugunez. Benetan mirezgarria da!

Danborren tam tam-ak baratxurien akrobaziak laguntzen ditu, batzuk besteen sorbalden gainean eskalatzen dute, ehun baratxuriz osatutako dorre bat osatu arte, benetan altua. Eskalatzailleak alderik gorenera iritsi ahala, beren buruak agertzen dituzte beren taldekideen buruen gainetik. Amaitzean, hostoak altxatu dituzte, aho zabalik dagoen publikoa agurtzeko, eta txalo pila jaso dituzte.

Aurkezlearen off-eko ahotsak hurrengo ikuskizuna iragarri du:

- Faltzesko Baratxuri Gorrien oreka-erakustaldi zoragarriaren ondoren, Tuterako mejanako letxuga, tipula, azenario eta tomate gazteek osatzen duten hiri-dantzako taldearen funky koreografiaz gozatuko dugu. Txalo bero bat beraientzat!

- Ondoren, nire txanda da –Mirarik xuxurlatu du emozioz betea.

Agertokian, barazki koloretsuek mugimendu indartsuak egiten dituzte eta mugimendu lasaiagoak tartekatzen dituzte, horiek teknika handia eskatzen dute. Ikusleek laguntzen diete musikaren erritmoarekin batera txalo eginez. Azenario, tipula eta letxugetako mototsa altuak haizetara doaz, dantza urratsen erritmoan. Eszenatoki osoa bete dute, eta, dantzaren zati batzuetan, talde txikietan jarrai dira, beren emanaldia irudi estatiko batean amaitu arte: tomateak belauniko daude borobilean, gainerako barazkiak inguratzen, irribarre handia dute eta besoak altxatu dituzte.

Ikus-entzuleek txaloka agurtu dituzte Tuterako barazkiak, eta aurkezleak ikuskizun berria iragarri du:

- Tuterako mejanako dantza-taldearen erritmo bizia ikaragarria da! Milagroko gereziak datoz orain, gimnasia erritmikoko emanaldi bat eskainiko digute. Artista hauek gimnasia erritmikoa eta jazz-dantza uztartzen dute. Ikusgarria!

Gereziak ilaran atera dira, ondo tente, eta elastikoak jantzita. Publikoa agurtu dute irribarretsu, beren betile luze eta masail distiratsuak nabarmen agertuz. Eszenatoki osoan zehar jarri eta erritmo handiz eta primeran uztartuta dantzan hasi dira. Dantzaldian irudi geometrikoak marraztu dituzte eta, binaka, jauzi hirukoitz hilgarriak egin dituzte. Amaitzeko, gerezi handi baten forma marraztu dute guztien artean. Agertokitik ateratzean, Mirarik Martin eta Amaia eskuarekin agurtu ditu, eta orduantxe, biratu eta lurrera erori da.

- Ai! –oihukatu du, gora eta atzera begira, nahasturik.


- Ikusi duzu? Nahita izan da –bere arrebari kontaktu dio Martinek.

- Zer?

- Beste gerezi batek zangozaba egin dio.

- Bai? Ez naiz konturatu.

- Zoragarri, Milagroko gereziak, zapore eta bitamina hutsa zarete. Eta orain, Nafarroako Erdialdetik, Metauteneko eta Baldorbako boilur beltzak datoz! Duela hiru hamar-kada baino gehiagotik, onddo horiek beren trikimailuekin eta usain hipnotikoarekin horditzen gaituzte. Nafarroako intxaurrak lagun dituzte, gehienak Lizarraldekoak. Txalo bero bat hurrengo artistentzat!




Agertokian, boilurrak armada ilun baten antzera ibiltzen ari dira, kapaz jantzita. Une zehatz batean, gelditu dira, eskuineko eskua altxatu dute, ahurra gora begira dutela. Intxaurrak ilaran eszenatokira irten dira orduan. Boilurrek intxaurrak animatu dituzte lurretik gora altxatzera, orduan argi berde batek inguratu ditu astiro, eta intxaurrek hegan egin dute. Planeatzen hasi dira eta bidean urre-koloreko lorratza utzi dute.

Ikusleen gainetik airean jira-biraka ibili dira eta ikusleek begiradaz jarraitu diete eta txalo egin dute, ondoren, behera egin eta lurra ukitu dute berriro, banan-banan. Azkenak lurra jo eta oskola hautsi du, bere bihotz zuri eta samurra agerian utziz. Porruz osatutako larrialdi-talde bat agertokira igo da ohatila batekin eta intxaurra eraman du, zaurituta.

- Trufen eta intxaurren magiaren emanaldia itzela izan da! Istripu tamalgarri bat gertatu da, baina ez da larria, kalteetako intxaurra lehenbailehen berreskuratzea nahi dugu. Jarraian, zuekin guztiekin, Nafarroako sagarrak! Gogoratu, Nafarroan 200 sagar barietate baino gehiago ditugula, herrialdeko iparraldekoak batez ere. Beren kolore eta usain ugariak eskainiko dizkigute bertako dantzen erakustaldi batean. Haiekin batera txistulariak izango dira, Nafarroako Udareak osatutako musika taldeari esker. Txalo bero bat haientzat!

Sagarrak eta udareak, dantzariak eta txistulariak, oholtzan agertu dira. Mendialdeko jantziekin: abarkak, buruan lotutako zapiak eta musikaren erritmoan biraka dabiltzan gona zabalak.



Mirari Amaiaren eta Martinen ondora itzuli da, irribarre egin eta eskuarekin agurtu ditu.

- Ongi zaude? –galdetu dio Martinek.
- Bai, kolpe galanta hartu dut, eta, a zer lotsa...
- Zure dantzakidea izan da, zangartea jarri dizu.
- Benetan? Direnak eta ez direnak botako dizkiot! – erantzun dio.

Mirarik kopeta zimurtu eta are gorriago jarri da, amorruz.

Sagarrek eta udareek Axuri Beltzaren erritmoan jauziak eta zilipurdiak egin dituzte eta azkenik, sagar ondu borobilek besoekin arkuak eratu, eta bikoteka arin korrika egiten dute, sigi-sagaka, Larrain dantzaren erritmoan.

- Emanaldi bikaina eskaini digute Nafarroako sagarrek eta udareek.



Ondoren, magia eta ilusionismoaren arteko ikuskizuna izango dugu! Izar handia dugu Corellako kardu gorria, barie-tate hori, Alhama ibaiaren ibarretik dator, eta akuario batean murgilduko da 40 minutuz, arnasarik hartu gabe!

Publikoak “Ohhh” ozen bat oihukatu du.

- Kardu gorriak berezko ezaugarria hartzen du 40 egu-nez lurperatzen denean. Prozesu horrek kolore gorrixka ematen dio, eta, gainera, samurtasuna handitu eta mingotsa murrizten dio. Mesedez, aurrera showarekin!

Oihala erretiratu, eta akuario handi bat ageri da. Kardu gorriaren orri-mamiak akuarioraino zuzendu dira, albor-nozarekin eta bainu-txano deigarriekin; uretan erabiltzeko txanoek kolore desberdinetako kardu-lorearen itxura dute. Eskailera batzuetatik igo dira, akuarioaren goiko aldera iritsi arte. Akuarioan buruz salto egin aurretik, ilusionistek albornoza kendu eta porru laguntzaile batek eusten ditu, horrela, bainu-jantzian eta prest daude. Behin uretan, doto-reziaz egin dute igeri, txilipurdiak egin dituzte eta hondoan pausatu dira, banan-banan. Ondoren, geldirik ipini dira, kristalezko hornei atxikita.

- Corellako kardu gorrien orri-mamiek ur azpian 40 minutu amaigabe jasaten dituzten bitartean, Nafarroako Barazkiaren gala honekin jarraituko dugu. Hurrengo ikus-kizuna rantxeren musika emanaldia izango da, Sartagudako mertxiken eskutik. Ongi etorri!

Jendeak gogo biziz txalotu du. Mertxika multzoak Mexikoko kapela handiak eta pontxo koloretsuak ditu. Ho-rietako bik gitarra jotzen ari dira, eta birak eta birak ematen

dituzten bi dantzari bikote ere badaude, eta dantzarien go-nak rantxeren konpasean jirabiraka dabilta.

- *Nire mutikotxooooooooo mertxika, usain eta kolooooooooore paregabekoa... Haren masailak hain leunak eta biribilak dira, koskadatxooooooooooooo bat emango nioke* (rantxera bat abes-ten dute).

Bat-batean, kardu gorrietako orri-mami bat ahuldu egin da akuario barruan. Gainerakoak geldirik daude, baina elkarri begira, begiak zabal-zabalik. Albornozei eusten dien porru laguntzailea korrika atera da eta eszenatokia zeharka-tu du. Halako batean, kasko eta hegazkin-betaurreko lodiko orburu bat akuarioaren goialderaino igo da motor hegalarri batean, aldamio batetik zintzilik utzi du, eta ziztu bizian erantzi da uretara jauzi egiteko eta kardu gorriaren orri-ma-mia erreskatatzeko. Uretatik kanpo, ahoz ahokoa egin dio akuarioaren albo batean. Kardu gorria berpiztu egin da eta orburu motordunaren eskutik altxatu da. Jendea txaloka dago, erreskatea eskertzeko.

Sartagudako mertxiken emanaldia amaitu denean (ez da gelditu, nahiz eta akuarioan jazotakoa gertatu), errebe-rentzia egin eta txalo artean agurtu dira.

- Ikusiko zenuten denek, ilusionistetako batek zora-biatu egin da uraren barruan, eta beharrezkoa izan da gure larrialdi-taldeak parte hartzea. Zorionez, kardu gorria be-rreskuratuta dago. Orain, Etxauriko gereziek aretoko dan-tzen erakustaldia egingo dute: hasieran, saltsa dantzatuko dute, eta azkenik, Argentinako tango bat. Ongi etorriak gure agertokira!

Gereziak ilaran atera dira, ilea motots batean bilduta, ondo estututa eta distiratsu. Bikoteka jarri eta estilo eta dotorezia handiz dantzan ari dira musikaren konpasean.

- Txalo handia Etxauriko gerezientzat, eta baita Correllako kardu gorrientzat ere! 40 minutuz ur azpiko erresistentzia-proba ikusgarria gainditu baitute! Nahiz eta bere lagunetako batek zorigaiztoko gertaera izan duen arren.

Kardu gorriaren orri-mamiak banan-banan igo dira azaleraino, eta jendea eskaileraren goialdetik agurtu dute, agertokitik atera eta alboz berriz jarri baino lehen.

- Pozez gaude Etxauriko gereziek ez gaituztelako oraindik uzten, orain, Milagroko gerezien laguntzarekin kabaret ikuskizuna eskainiko dute! Nahiz eta azken hauek ureztauak izan eta Etxaurikoak lehorrekoak izan, euren ezaugarri garratza eta gozoa partekatzen dute, eta, batzuk ala besteak artista galantak dira! Gainera, Nafarroako bi fruta hauen distira apartekoa da! Eman hasiera elkarrekin egindako emanaldiari!

Milagroko gereziak frak, elastiko eta kopa-kapelarekin jantzita agertu dira eszenatokian. Etxauriko lagunekin tartekatu dira eta beren zango finak txandaka altxatu dituzte, zirkuluak marraztuz eta besotxoak airera altxatuz musikaren konpasean. Mirarik zeharka begiratu dio dantza taldekideari emanaldi osoan. Ikuskizuna amaitzean, eszenatokitik ilaran irteten dira, dantzatzeari utzi gabe eta publikoari irribarre egin gabe. Mirarik Amaia eta Martin agurtu ditu eszenatokitik irten baino lehen, bere kopa-kapela altxatuz, eta jiratzean, bere laguna ezustean harrapatu du ka-

baret makila bat hanken artean jartzen. Neskak jauzi batez saihesten du, eta ostiko txiki batez bultzatu du; beraz, bera da oraingoan estropezu egin duena.

- Ondoren, trapezista gazte batzuei emango diegu lekua. Gurekin ditugu Zangozako potxak! Landare-zorrotik atera dituzte heldutasuna bete aurretik, oraindik malgutasun, samurtasun eta freskotasun osoa dutenean, eta, beraz, airean izugarritzko tortzioak egiteko gai dira.



Oihalaren atzean, hamar trapezio ageri dira sabaitik zintzilik, argi urdinez argizatuta. Potxek lekekin egindako kasaka luzeak janzten dituzte, mahukak distiratsuak eta sorbalda gainean puntan amaitzen dira. Trapezioen gainean kulunkatu dira eta zirkuluetan hegan egiten dute, beso eta hanka bakarretik helduta, eta beraien artean elkarri lotzen dira, ikuslekoa hipnotizatzen duten elipseak marratuz eta bihotza aldi berean kuzkurtuz, eszenaren arriskugarritasunagatik eta zorabioagatik.

Halako batean, beren trapezioetatik salto egiten dute, segundo batzuek irudi bat egiteko airean, eta jauzi egin eta berehala, trapezioetara itzuli dira. Ene, bada, zorigaitza gertatu da! Haietako bat ez da trapeziora iritsi eta lurrera amildu da. Bat-batean, orburu motorduna airean sartu eta hegan doa berarengana eta besoen artean jasotzeko garaiz heldu da. Oihala itxi da, entzule harrituden txaloen artean.

- Zangozako potxa akrobatikak agurtuko ditugu mezezi duten bezala, eta nola ez, erreskate bereziko taldeko gure orburu motorduna

ere, zer egingo genuke hura gabe! Bide batez, gogorarazi nahi dizuet, epaimahaiak ematen duen sariaz gain, ikusleek beste sari bat erabakiko duzuela, hau da, publikoaren saria erabakiri behar duzue! Hortaz, emanaldiei arreta jarri eta gogokoena zein duzuen pentsatu!



dago, eta, orain arte, oihalaren atzean egon da, baina orain, haiengana hurbildu da.

- Ebro, zer moduz? Ez dugu hemen trabarik egiten, ezta? –galdetu dio Pikitxuk.

- Lasai, hemen gera zaitezke nirekin.

- Ebro da ikuskizun guztiaren gidaria, eta opera-ablesaria eta musika-entresaria da. Barazki eta fruta guztien maisu izan da, beti laguntzeko prest dago, eta ahotsik onena du! –ziurtatu die Pikitxuk.


Ebrok mikrofonoa hartu du:

- Jarraian, Ebroko Erriberako artista ospetsua...Europar saritua... bera da...Nafarroako Zainzuria! Mesedez, agurtu dezagun merezi duen bezala, txalo zaparrada berarentzat! Gaur Barazkien Jaialdian parte hartzeko bere biran lekua egin du eta oso pozik gaude. Txalo bero bat Aspergus izarrarentzat, nazioartean barazkirik ezagunena!

Aspergus eszenatokira atera da bere txapelarekin eta urrezko kateekin, eta zapatila handi batzuekin irristatzen da, lurrean hegan egingo balu bezala. Hip hopa hain erraz dantzatzeko duenez, badirudi goitik mugitzen diren hariak dituen panpina bat dela. Lurreraino leunki jaisten da eta oso erraz zutitzen da, eta aldi berean indar paregabe batez. Denak uzten ditu ahozabalik.

Aspergus dantzan ari den bitartean, bat-batean, eszenatokira tomate galant bat sartu da kantari. Aurpegi biribildu eta txapela eta zapatila handiak daramatza jantzita.

- Tuterako Itsusia al da? Noiztik abesten du? Nork esango luke, baina bai behe-ahots polita duena! –dio Kharsuf orburuak Pikitxuri; kamerinotik atera baita emanaldia ikustera. Pikitxuk sorbaldak altxatuz egiten dio irribarre.



Karshufek begiaren marra margotuta darama benetako khol marokoarrez, mineralaren kolore ilunez, eta tintin-hotsa ateratzen duten zintzilikarioz betetako beloa eta erorketa eta hegaldi ugari gona jantzita ditu: bere emanaldirako prest dago.

(rap baten letra)

*“Beti Itsusi esan didate,
orain, asmatu nire sekretua,
entzun nire ahotsa abesti honetan,
eta galduko zarete emozioetan...
Kantatzen dituzun letrak nik osatzen ditut,
eta miresten nauzu, ez zara konturatzen,
ume arraro bat nintzenean, nire kontra aritzen zinen
eta orain miresten nauzu, idazten dudanagatik
eta nire ahalmenagatik.
Gogoratu nire aurpegia, eta nire ahotsa,
nire arrakastaren eta gainditzearen historia.
Itsusia naiz, hori naiz ni,
eta nire balioa da nire zaporea.”*

Tuterako Itsusiak ezin hobeto kantatu du.

Txalo olatu handi batek zeharkatu du publikoaren gunea.

Aspergusek eta Tuterako Itsusiak entzuleak agurtu dituzte. Jendea eserlekuetatik altxatu da txalo egiteko. Artistek airera musuak jaurtiz agurtu eta atze-oihalaren artean sartu dira.

- Primeran egon zara, Aspergus –esan dio Pikitxuk, besoa maitasunez ukituz. Nafarroako Zainzuriak irribarre handia egin dio.

- Jaialdiko arrakasta handiena lortu duzu, Itsusi. Orain arte ahopean mantendu duzu, ezta? –esan dio Karshufek begi bat kliskatuz eta ukondoarekin emeki bultzatuz.

Bi artistak Pikitxu, Ebro, Amaia eta Martinen ondoan geratu dira, oihalaren atzean. Ebok zaplada txiki bana eman die bizkarrean eta mikrofonoa hartu du berriro.

- Eta gure ikuskizuna amaitzeko, emanaldi desiratu bat...zuekin guztiekin, iazko irabazlea eta sabel-dantzako dantzari gorai patua! Gurekin guztiekin Europako sariduna: Tuterako Orburu handia, Karshuf!

Eszenatokia guztiz ilun dago baratzeko lorea, Tuterako Orburu Zuria, agertu denean, bere bolante-gona era sentsuailean mugituz, hostoz inguraturik dago eta zurtoin liraina du.

Mugimendu hipnotikoekin biratu eta biratu egiten du, be-loek tintina-hotsa ateratzen dute. Arabiar dantzako musika-kanta berri bat hasterakoan, artista oihal-atzean sartu da eta buru gainean argiontzi bat duela berragertu da, zazpi kandela piztuta ditu.

Dantzaldiaren amaieran, beloak eta gona astindu ditu, publikoa agurtzeko, eta ikusleek denbora luzez txalo egin dute.

- Barazkien Jaieren ikuskizuna amaitzear dago. Gogoratu ikuskizunik onenaren alde bozkatu behar duzuela, sarietako bat publikoak ematen baitu. Antolatzaileek laster jasoko dituzte zuen botoak.

Porru pila agertu dira, uniformearekin jantzita daude eta ikusleak eserita dauden ilaren artean dabilta bozkak jasotzen.

- Itxura guztien arabera, Tuterako Itsusia irabazlea izango da, gauaren ustekabea berak jo du, nahikoa da ikusleen erantzuna ikustea! –dio Karshufek oihalaren atzeko artista-multzoaren artean.

- Ez dago garbi. Nire ustez, onena orburu motozale hegalaria izan da! –dio Martinek alaiki.

- Bai horixe! –erantzun dio arrebak.



Ebrok mikrofonoa hartu du beste behin:

- Orain jakingo dugu edizio honetako epaimahaiaren sariaren irabazlea... barazki irabazlea da...

Aurkezleak gutun-azal bat ireki du eta bere edukia irakurtzen ari da:

- Antzinako artisten ezaugarriak eta ñabarduraz eta kolorez betetako ahots-tinbrearen ezaugarriak izateaz gain, Tuterako Itsusiak bere bertsoekin mezu garrantzitsua helarazi digu nork bere buruarekin dituen mugak gainditzeko. Txalo beroak berarentzat! Tuterako Itsusia da irabazlea!

Tuterako Tomate Itsusia agertokira igo da Ebro eta Karshufen eskutik saria jasotzera.

- Eskerrik asko. Ohore handia da niretzat sari hau Ebro maisuaren eta Karshufen eskutik jasotzea, zuen zale handia bainaiz. Eskerrik asko epaimahaiari eta publikoari nire musika eta historia estimatzeagatik!

- Amaia, Martin, etorri, Barazkien Jaia bisitatzen jarraitu behar dugu! –entzun dute urrunean.

- Entzun duzu hori? Amona deika ari zaigu! –esan dio Martinek arrebari.

- Bai, argi eta garbi, baina, non daude? –erantzun dio Amaiak.

Haien bila joatean, jaialdiaren zalaparta entzuteari utzi diote tupustean. Parkearen erdian daude berriro, Pikitxu igarotzen ikusi baino lehen jolasten ari ziren errekan beraren ondoan.

- Zer gertatu da? Nola gaude berriro hemen? –dio Martinek Amaiari.

- Oraintxe bertan bukatu behar zitzaigun jaia...arranopola! Hain justu ikusleen saria ezagutzera emango zute-

nean...Ze gogaikarria! Nori eman ote diote?

- Tira, bikaina izan da!

- Mundiala izan da! –Amaiak irribarre handi batekin esan dio anaiari.

- Zertaz ari zarete? Pintxo batzuk jatera joango gara, zer iruditzen zaizue? –galdetu die aitonak.

- Oso ongi! –erantzun diote.

Taberna batera sartu dira eta barraren gainean mota guztietako pintxoak daude. Amaiak hurbiletik begiratu die, zalantzan dago, ez daki zein hautatu.

- Animo, eskatu piperrarekin egindako pintxo! –esan dio Pikitxuren ahotsak belarrira –Karbohidrato hutsa naiz eta C bitamina, zuntza eta mineralak: fosforoa, potasioa, magnesioa eta kaltzioa.

Pikiyak barre egin du eta begiak kliskatu ditu, harro, besoak altxatu eta tolesten dituen bitartean, bere bizeps gorriak erakusteko.

- Hauxe da Lodosako Pikillo Piperren indarra! Kar-kar-kar!

Amaiak irribarre egin du eta anaiari begira jarri da. Badirudi tabernan beste inor ez dela konturatu hizketan ari dena neskato-piper bat dela.

- Nik orburu eta foie pintxo nahi dut, nire gogokoe-na, –dio aitonak– Bi eskatuko ditut, eta beste bi alkatxofa-bihotz frijitu ere. Horrela, denok dastatuko ditugu.

- Bai, ederki! –animatu du Martinek.

Aitonak pintxoak mahaira ekartzen dituen bitartean, Karshufen ikuskizuneko dantza-musika entzuten dute Amaiak eta Martinek, uhin-mugimenduekin albotik hurbiltzen ari baita. Sinesgaitz begiratzen diote elkarri. Oraingoan, inguruko jendea ere ez da konturatu barazki bizidunak daudela.





Aitonak bilobei pintxoen erdiak eskaini dizkie.

- Hori da hori, nik dudan zapore ona! –ekialdeko dantzariak belarrira xuxurlatu die barrez.

- Egia esan, gutizia bat zara! –aitortu dio Martinek.

- Aparta, Karshuf! –dio Amaiak– Barkatu, orburua esan nahi nuen –zuzendu egien du neskatoa, eskua ahora eramanez.

- Are gehiago, fruktosa hutsa naiz B1 eta B3 bitaminekin, eta mineralak ere bai: potasioa, sodioa eta kaltzioa –azaldu die, aldakaren mugimendu hipnotikoekin hosto berdeen gona astindu, eta dantzan dabilen bitartean.

- Nik Nafarroako Zainzuri beteak jan nahi ditut, barran daude, hantxe – erakutsi die amonak– Bi ekarriko dituzue eta partekatuko ditugu?

- Bai! –diote bilobek.

Martin eta Amaia barrara joan dira, eta Aspergus haren atzetik azaldu da, hip hopa dantzatzuz zainzuri-pintxoan ondoan, eta hatzarekin jakiak seinalatuz. Hura ikusi, eta haurrak barre-algaraka hasi dira.

- Aspergus! Hip hopeko dantzaririk onena zara –esan dio Martinek.

- Ni naiz marfil zuria, proteina hutsa, zuntza eta bitamina. Barazki egindako mineral hutsa! Samurrena!

Aspergusek irribarre egin die beren propietatez pozik.

Mahaiaren inguruan, familia osoak dastatu ditu zainzuri-pintxoak.

Amaitu, altxatu eta tabernako irteerantz doaz. Aspergus, Karshuf eta Pikitxuk ateraino lagundu diete.

- Itzuli egin behar duzue –dio Pikitxuk.

- Datorren urtean izango gaituzue zain! –esan die Aspergusek.
- Baina oroit zaitezte urte osoan barazkiekin –eskatu die Karshufek.
Hirurek Martin eta Amaia besarkatu dituzte eta desagertu egin dira.

Korrika batea, aiton-amonaren ondora joan dira. Haiek tabernatik atera eta etxerako bidean daude jada.

- Nafarroako Barazkien Jaia aunitz gustatu zait! –dio Martinek.

- Urtero etorri behar dugu –dio Amaiak.



Nafarroako kalitatezko elikagaiak



Nekazaritza eta abeltzaintzaren bidez gure dietan behar ditugun elikagai asko lortzen dira. Nafarroan elikagai barietate handia dugu. Tokiko, sasoiko, kalitatezko eta modu jasangarrian ekoiztutako elikagaiak kontsumitzea gure ingurunearentzat ona da, gure herriak bizirik jarrai daitezten eta Nafarroan dauden paisaia ederrez gozaten jarrai dezagun laguntzen duelako.

Badakizu zer den Reyno Gourmet?

Nafarroako kalitatezko elikagaiak babesten eta bereizten dituen marka da, aterki handi baten gisa, erosketak egitean aurkitu ahal izateko. Aterki horren azpian daude Babestutako Jatorri Deiturak (B.J.D.), Adierazpen Geografiko Babestuak (A.G.B.) eta dagoeneko ezagutu dituzun gainerako zigiluak.

Elikagai horietako batzuk etiketan edo ontzian dauzkaten zigilu batzuei esker identifika ditzakegu. Ezagutzen dituzu?

Hemen azaltzen dizugu zeintzuk diren, **ea zenbat aurkitzeko gai zaren erosketak egitean!**

European hainbat zigilu daude, kontsumitzen ditugun elikagaiei aplikatu dakizkiekeenak, haien kalitateagatik bereizteko aukera ematen digutenak eta erosketan egiterakoan identifikatzen lagunduko dituztenak. Horietako bakoitzak informazio zehatz bat ematen du:

BABESTUTAKO JATORRI DEITURA (BJD)



Zigilu hau duten elikagaiak **toki zehatz batean ekoiztu eta landu dira**. Leku horretako **tipikoak** dira eta beren izena dute.

Nafarroan, lau ditugu: Lodosako Pikillo Piperra, Nafarroako Olioa, Erronkariko Gazta eta Idiazabal Gazta.



ADIERAZPEN GEOGRAFIKO BABESTUA (AGB)



Zigilu hau duten elikagaiak ere tipikoak diren **lurralde zehatz batekin lotzen dira**. **Gutxienez ekoizpen-fase bat leku horretan egin behar da**.

Nafarroan, lau ditugu: Nafarroako Zainzuria, Tuterako Orburua, Nafarroako Aratxea eta Nafarroako Arkumea.



EKOIZPEN EKOLOGIKOA



Zigilu horrek bermatzen du elikagai bat **produktu kimikorik erabili gabe** eta ingurumena eta animaliak errespetatuz ekoitzi dela, naturaren zikloak errespetatuz. Nafarroan, mota guztietako elikagai ekologikoak aurki ditzakegu zigilu honekin:



Gainera, **Nafarroan** badira elikagai batzuen ezaugarriak ezagutzeko aukera ematen duten beste zigilu batzuk:

ARTISAU-ELIKAGAIAK



Eskuz eta modu tradizionalean, artisau batek egindako elikagaiak dira.

EKOIZPEN INTEGRATUA



Ingurumena eta animaliak errespetu handiagoko jarduerekin ekoiztu diren elikagaiak identifikatzen ditu (produktu kimikoen erabilera minimizatuz, hondakinak kudeatuz, etab.).

NAFARROAKO TXISTORRA



Nafarroako Txistorrak darama zigilu hau. Nafarroan egin dela dio, errezeta tradizionalarekin eta kalitate egokiarekin.

BESTE ELIKAGAI BEREZI BATZUK



Balio handiko barietate eta arrazetako Nafarroako nekazaritzako elikagaiak dira, desagertzeko arriskuan daudenak. Betizu, Euskal Txerri, Sasi Ardiko zikiroa, Nafarroako Jakako moxala eta Burguete dira arrazak. Eta barietate hauek: Faltzesko baratxuria, Corellako kardu gorria eta Azkoiengo zuria, Etxauriko eta Milagroko gereziak, antzinako barietateetako sagarrak, Sartagudako melokotoia, Nafarroako intxaurra, Pirinioetako patata, Zangozako potxa, Tuterako tomate itsusia eta antzinako beste batzuk eta Trufa.

Eta onena,

probatu dituzu?



